

Aiaraldea

Eskualdeko bertso bilduma

2012-2013 ikasturtea

Proiektuaren sustatzaileak

Amurrioko Udala
Amurrioko ikastetxeak
Urduñako Udala
Aiarako Udala
Laudioko Udala
Artziniegako Udala

AURKIBIDEA

Gelaz gelako bertsoak

- 3. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 5.A
- 4. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 5.B
- 5. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 6.A
- 6. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 6.B
- 7. orrialdeaFabian Legorburu ikastetxea- Audio - 5.maila
- 8. orrialdeaFabian Legorburu ikastetxea- Audio - 6.maila
- 9. orrialdeaLamuza ikastetxea- Audio - 5.maila
- 10. orrialdea.....Lamuza ikastetxea- Audio - 6.maila
- 11. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.B
- 12. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.D
- 13. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.B
- 14. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.D
- 15. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 5.A
- 16. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 5.B
- 17. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 6.A
- 18. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 6.B
- 19. orrialdea.....Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Berdeak
- 20. orrialdea.....Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Horiak
- 21. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 5.A
- 22. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 5.B
- 23. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 6.A
- 24. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 6.B
- 25. orrialdea.....Zabaleko ikastetxea – Amurrio – 5. eta 6. maila
- 26. orrialdea.....Virgen Niña ikastetxea – Amurrio – 6.maila
- 27. orrialdea.....Virgen Niña ikastetxea – Amurrio – 1. DBH
- 28. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 6.A
- 29. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 6.B
- 30. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 1. DBH.A
- 31. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 1. DBH.B
- 32. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 1.D
- 33. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 1.E
- 34. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 1.F
- 35. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 1.G
- 36. orrialdea.....Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega - 5.maila
- 37. orrialdea.....Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega - 6.maila
- 38. orrialdea.....Urduña Herri Eskola – Urduña- 5. maila
- 39. orrialdea.....Urduña Herri Eskola – Urduña- 6. maila
- 40. orrialdea.....Josefinos de Murialdo - Urduña - 5. maila
- 41. orrialdea.....Josefinos de Murialdo - Urduña - 6.A
- 42. orrialdea.....Josefinos de Murialdo - Urduña - 6.B

Bertso-eskolak

- 43. orrialdea.....Eskualdeko bertso-eskolak



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.A

KORRIKA

Euskara bultzatzeko
korri egingo dugu
2000 kilometro
Baiona helburu
lotu zure zapatak
itxoiten zaitugu
lekukoa hartzeko
gogoak ditugu

Eman euskara elkarri
eskutik eskura
Baionararte goaz
ez daukagu duda
tipi-tapa hanketan
botiletan ura
euskaldunak korrikan
ez daukagu muga

BERTSO KOPLAK

Bertsoak ondo abesten
ikasiko dugu
gogoak guk horretan
jartzen baditugu

Talde bat egin dugu
koplak egiteko
gero zure aurrean
ozen abesteko

Asko ikasten dugu
bertsoak abesten
doinu eta errimak
hitzekin jolasten

EUSKARAREN EGUNA

Gorri, berdea eta zuria
herri honen koloreak
sustrai sakonak ditu euskarak
eta adarrak tenteak
mota guztietakoak loreak
arrosak eta berdeak
zuhaitza euskara aditza adarra
ta hitzak dira loreak

Euskararen eguna heldu da
gure eskola honetara
Pilontxo pozik dago gaurkoan
ta atera da dantzara
gaurko eguna eraman zazu
zuk egun guztietara
ez da egun bakarreko gauza
erabil zazu euskara

(pilontxo= La Milagrosako
maskota)



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.B

Euskararen eguna
Euskaraz bizi nahi dugu denok
eskolan eta etxean
herriko plazan mendiko puntan
eta supermerkatuan
orain pisutan hitz egiten da
ta lehenago baserrian
eta entzuten jarraitu nahi dut
euskara etorkizunean

Andoainetik Baionara arte
gau eta egunez txandatan
furgonetaren atzetik goaz
gau eta egunez txandatan
aldapa, bide eta karrikan
nekatu arren korrikan
eman dezagun euskara elkarri
Euskal Herriko bideetan

NEGUA

Eguzkiak ote du
agertzeko lotsa
bisita egiten badu
izaten da motza

UDABERRIA

Udaberria dator
lore askorekin
belardiak beteta
txorien kantukin

UDA

Oporrak heldu dira
ta notak ere bai
penkorik ez badugu
gurasoak alai

UDAZKENA

zuhaitz denak biluzik
hostoak lurrean
melankolia usaina
badago airean



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 6.A

EUSKARAREN EGUNA

Hizkuntza asko galtzear daude
haien artean euskara
euskara babestu behar dugu
gu euskaldunak bagara
zure hizkuntza maite baduzu
eraman zazu ahora
benga euskalduna! Ez errenditu!
gure mingainak lanera!

ESTRATOSFERATIK BOTA ZEN ZOROA

Red Bull taldean dago
munduko azkarrena
hegazkinak atzean
utzi zituen
zoro honentzat ondo
bukatu zen dena
gizakien historian
jauzi handiena

GABONAK

Jostailu ta jolasak
eskatu ditugu
Olentzeroak guri
ekarri dizkigu
urte berria dator
ospatuko dugu
jende guztia orain
nahi dut zoriondu

KORRIKA

Gure hizkuntza bultzatu nahian
errepideak beteta
furgonetatik belarritara
Esne Beltzaren tronpeta
izerditan blai ta nekatuta
baina inoiz ez erreta
arrain txikiak izango gara
ta korrika gure erreka



**La Milagrosa ikastetxea—Laudio
6.B**

KORRIKA

Zapatak lotu, petoa jarri
eta atera bidera
Andoainetik Baionara arte
goazen korrika egitera
mugi ipurdiak hartu arnasa
bidean gora ta behera
Tipi-Tapa-ka goazen aurrera
gure hizkuntza bultzatzera

EUSKARAREN EGUNA

Euskara bada bitxi-bitxia
eta benetan zaharra
eta askotan zeharkatu du
berak arriskuaren marra
egun batean galtzen badugu
sortuko zaigu negarra
Horrexegatik, guztiok dugu
euskara zaindu beharra



**Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio
5. maila**

AI ZAPOTXIN

Musikarekin Egon
Nahi dugu goizean
Ohean lotan Egon
Nahi dugu goizean

Guk aberatsak izan
Nahi dugu benetan
Limusina bat izan
Gure etxeetan

Nahi dugu tobogan bat
Patiora joateko
Ta nahi dugu buffet bat
Jantokian jateko

Disneyland Parisera
Nahi dugu txangoa
Oporrak eukitzeko
Badugu gogoia

Ekarri mugikorra
Ta lanak ez egin
Mate eta euskera
Kendu berdin berdin

Guk egin nahi dugu bai
Saloura bidaia
Gure lagunekin ta
Txakurrekin jaia

Goizeko hamabitan
Ta hirurak arte
Ta betiko kentzea
Inguru ta mate

Nahi dugu messi hemen
Klasea emateko
Futbola ikasteko
Eta jolasteko



**Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio
6. maila**

GURE KLASEA

Aretako eskola
Oso ona da ta
Jantokian jateko
Kristoren zarata
Futboleko zelaia
Da pixka bat kaka
Guk hori hobetzeko
Ematen la lata

7 mutil 4 neska
Bagaude klasean
Ta erdi lokartuta
Bagaude goizean
Kendu etxeko lanak
Eta denok festan
Askoz hobeto gaude
Jolasten kalean

Eskolako guztiok
Korrika gaude ta
Lehenak irtetzeko
Beti lasterketa
Musikak jotzen badu
Egitera festa
Guk ez dugu nahi inoiz
Egin azterketa

Pixkat gaiztoak gara
Jatorrak ere bai
Baina irakasleak
Ez dira oso guay
Klasetik joaten gara
Pozik eta alai
Eta etxeko lanak
Ez dugu egin nahi



Lamuza ikastetxea - Laudio
5. maila

AI ZAPOTXIN

Eskolan egoteko
Atrakzio parkea
Diskoteka batean
Dantza egitea

Patioan hiru ordu
Egoten bagara
Zentro komertzialera
Bagoaz dendara

Gimnasiako parkean
Festak ospatzea
Eta guk ez dugu nahi
Frogak egitea

Txokolate iturria
Nahi dugu klasean
Eta futbol zelaia
Hemen bat-batean

Merendola egunero
Nahi dugu egitea
Eta arratsaldean
Parkera joatea

Mugikorra klasean
Nahi dugu erabili
Etxeko lanak kenduz
Primeran ibili

Yacussia nahi dugu
Eduki klasean
Eta gero ikusi
Zinema goizean



Lamuza ikastetxea - Audio 6. maila

BERTSO POSTALA

Kaixo lagunok gure oporrak
Aurten badira parisen
Torre eiffela ikusi dugu
Ta oso altu zegoen
Notre dame oso polita da ta
Gu patea beti jaten
Frantziar asko ikusi dugu
Mimoarena egiten
Ez gara inoiz itzuliko ze
Oso ondo gaude hemen

Kaixo lagunok hawayen gaude
Gure oporrak pasatzen
Hamaka baten igo gara ta
Hori hasi da apurtzen
Tximino asko ikusi dugu
Gure platanoak jaten
Piszinetara joan gara gero
Tontoarena egiten
Ez dugu gure etxera joan nahi
Gelditu nahi dugu hemen

Kaixo lagunok gure oporrak
Aurten dira las vegasen
Laurok joan gara hotel batera
Ta gero kasino baten
Apustu ona egin dugu ta
Milloi bat euro irabazten
Gero hotelera joan gara eta
Han bat zegoen lapurtzen
Agur lagunak ta gero arte
Igual ez gara bueltatzen

Ciao Amici venecian gaude
Gure oporrak pasatzen
Gondola baten gainean goaz
Hiri polit hau ikusten
Pizza pasta ta espagetiak
Ari gara laurok jaten
Gure sabela ondo beteta
Siesta bota genuen
Pizza goxo bat hartuko dugu
Zuek proba dezazuen



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.B

GABONAK

Urte berri honetan
Da festa handia
Turroia jaten dugu
Da gabon berria

Olentzero etorri da
Hogeitalauean
Opari asko ditugu
Bai gure etxean

Negua iristen da bai
Gaboneko jaiak
Gaboneko zuhaitza
Eta opariak

Urte berria dator
Mahatsak jatera
Petardoak botatzen
Bagoaz kalera

Elurra egiten du
Aurtengo neguan
Opariak ditugu
Gure etxeetan

Opariak ditugu
Eskolarik gabe
Olentzero etorri da
Oso pozik gaude

Olentzero ta astoa
Karibbean daude
Surfa egiten baina
Bikiniarik gabe



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.D

AI ZAPOTXIN

Argiñano egotea
Gure sukaldean
Yakussi bat jartzea
Bai gure klasean

Azterketak kentzea
Gure klaseetan
Izozkiak jatea
Egun guztietan

Jolastoki berria
Frontoia ere bai
Jantokian buffet-a
Hori bai dela guay

Disneyland parisera
Bidaia egitea
Ta bideojokoekin
Beti jolastea

Bideojoko gela bat
Klasean jartzea
Eta horren ostean
Yakussia egotea

Jolastordua handitu
Klaseak laburtu
Gauza hauek nahi ditugu
Klasean apurtu

Barrakak egotea
Gure klaseetan
Musika egotea
Jolasteko festan



**Lateorro ikastetxea—Laudio
6.B**

ESKOLA

Oso aspergarria
Klasera joatea
Ez da dibertigarri
Txapak entzutea
Oso gustoko dugu
Beti jolastea
Katxondeo handia
Da gure klasea

Etxeko lanak beti
Guri molestatzen
Guk nahi dugun bakarra
Dibertitu hemen
Asko aspertzen gara
Klaseak entzuten
Eta orain bagaude
Bertsoak kantatzen

Lateorro eskolan
Seigarren B gara
Guri gustatzen zaigu
Barre ta algara
Oso gustoko dugu
Bertso ta Euskara
Gure klasea da bai
Benetan pasada

Irakasleen ustez
Gu gara gaiztoak
Klasean batzuk dira
Pixka bat eroak
Baina gehienetan gu
Bagara txintxoak
Ondo pasatzen dugu
Egiten bertsoak



Lateorro ikastetxea—Laudio 6.D

GURE KLASA

Gure klasean beti
Gaude hitz egiten
Euskara eta mate
Ez zaigu gustatzen
Lateorro ikastetxean
Gu gaude glasean
Ta oso ondo gaude
Patioan jolasten

Lateorro eskola
Hoberena da ta
Baina irakasleak
Ematen la lata
Patio handi honetan
Umeen zarata
Pozik gelditzen gara
Klaseak pasata

Seigarren D klasea
Onenak garela
Adierazi nahi dugu
Bertsotan horrela
Politak ta hiztunak
Loroak bezela
Zoologiko handia
Bada gure gela

Baina lagun guztiak
Lateorron gaude
Etxeko lanik gabe
Gaude askoz hobe
Klaseko patioan
Gu gara errege
Askoz hobeto gaude
irakasle gabe

Lateorron bagaude
bertsoak egiten
patio handia dago
gu beti jolasten
polita da eskola
ondo gaude hemen
Gorka oso jatorra
Klaseak ematen



Laudio Ikastola—Laudio 5.A

EUSKARAREN EGUNA

Gaur euskararen eguna
Haxe da egun txukuna
Ta egunero erabiltzea
Da egin behar duguna

Abenduaren hiruan
Bagabiltza gu kantuan
Gu bezalako bertsolaririk
Ez da ezagutzen munduan

Den denok ondo pasatzen
Egun polit bat ospatzen
Ta horregatik guztiok gaude
Gure bertsoak kantatzen

Polita da guretzako
Ta maitatzen dugulako
Gure hizkuntza zaindu behar da
Euskaldunak garelako



**Laudio Ikastola—Laudio
5.B**

EUSKARAREN EGUNA

Parrandan goaz herritik
Ez dago gauza hoberik
Jaia daukagu a ze txolloa
Ez dugulako klaserik

Hitz egitea helburu
Ta euskaldunak gara gu
Euskara gure altxorra da ta
Zaindu egin behar dugu

Gure bertso eta kantaz
Beteko dugu errimaz
Neska mutilak bizi nahi dugu
Euskal herrian euskaraz

Gu konbentzituta gaude
Hego eta iparralde
Euskal herria batuta dago
Goaz euskararen alde



Laudio Ikastola—Laudio 6.A

KORRIKA 18

Korrikara etorri
Ta korrika egin
Lekukoa eraman
Lagun guztiekin
Oso ondo pasatu
Eta joan arin
Baionara heltzeko
Irribar batekin

Korrika egingo dugu
Guztiok batera
Bultza dezagun denok
Bagoaz aurrera
Euskara zabaltzeko
Badugu aukera
Joan gaitezen guztiok
Korrika egitera

Korrika nora zoaz
Batetik bestera
Lekukoa eskuan
Mintzatzen euskera
Hasten da Andoainen
Guztiok aurrera
Bukatzeko Baionan
Ta denok ohera

Oso pozik bagoaz
korrika egiten
Euskal herri osoari
Buelta bat ematen
Euskara zabalduta
Bagoaz irteten
Korrika disfrutatuz
Euskaraz mintzaten

Gaur jai eguna da ta
Gu gara hemen jabe
Korrika hasi gara
Suabe suabe
Herria bihotzean
Zalantzarik gabe
Korrika egitera
Euskararen alde

Korrikan parte hartu
Etorri gurekin
Euskal herrian zehar
Lagun guztiekin
Korrika hastera doa
Gogo handiekin
Eta amaitu ere
Ilusioarekin



Laudio Ikastola—Laudio 6.B

KORRIKA 18

Martxoak hamahiru
Hasten da korrika
Ondo pasako dugu
Petoa jantzita
Gure festa handia
Gainera polita
Laudion ere guztiok
Badaukagu zita

Guztiok joango gara
Korrika egiten
Andoainen hasita
Baionan bukatzen
Lekukoa hartuta
Guztioi pasatzen
Ondo pasatzen dugu
Euskaraz jolasten

Martxoak hamahiru
Korrika da hasten
Andoainetik hasi
Baionan bukatzen
Plazara atera eta
Hasi ia mintzatzen
Korrika egiten hasi
Hau ez da bukatzen

Martxoak hamahiruan
Korrika hasten da
Andoainetik goaz
Ondo pasatzera
Lekukoa soinean
Ahoan euskara
Euskal herri guztian
Korrika egitera

Korrika nora zoaz
Euskaditik noa
Ibilbidea egiten
Doa lekukoa
Gipuzkoa Araba
Bizkai Nafarroa
Eta iparraldetik
Azkar azkar doa



Etxaurren ikastola - Arespaldiza Berdeak

KORRIKA

Euskaldun denak martxo honetan
bideetan dugu zita
tipi tapaka Baionararte
Andoainetik hasita
gelditu barik doa aurrera
beti musika jarrita
eukararen alde izerditan
Euskal Herria Korrika!

Irakasle gehienak
txapa ematen dute
etxeko lan gehiegi
bidaltzen digute

Etxaurren ikastolan
gaude ume pila
hona ez zaitez etorri
lasaitasun bila

ASMAKIZUNA

Oso berdea da ta
badauka bizitza
baina ikustezina
da bere bihotza
lehengusuak baditu
pagoa ta haritza
ardiek jaten dute
nahiz ta egon hotza
(arraleb)

Eskola guztietan
denetarik dago
ni eskola honetan
oso pozik nago



Etxaurren ikastola - Arespaldiza Horiak

"La que se avecina" telesaioari jarritako koplak

IHAUTERIAK

Mozorroak jantzita
goazen abestera
oilarrakin batera
kurruku egitera
ikastolako umea
etxetik etxera
Menagaraiko herrira
goazen eskatzera

IKASKIDEEI AGUR

Hurrengo urtean batzuk bagoaz
hemendik institutura
ekain honetan bukatzen zaigu
ikastolako denbora
batzuk ordea hementxe bertan
goazen hurrengo kurtsora
zuek gabe gu ez gara egongo
eskola honetan gustora

Amador eta Maite
beti borrokatzen
Maitek nahi du pentsioa
ta ez dio ematen

konkistatu nahi badu
Kukiren bihotza
Amadorrek badauka
Maxiren laguntza

Gregoria hil egin zen
kroketak egiten
orain Vicente dago
telebista ikusten

Javi eta Lolita
elkarri maitatzen
Estela etorrita
orain borrokatzen

Judith eta Enrique
beti muxukatzen
gero Rakel ta Nines
elkar izorratzen

Antonio Recio bada
mayorista ona
Presidente izaten
ez da hoberena



Lucas Rey ikastetxea - Amurrio 5. A

Letra itsusi honekin
beteta gutuna
eta eskatu dizugu
katalogo dena
asto txikiarentzat
gehiegizko zama
eta ekarri diguzu
ikatz zaku bana

Hizkuntza eder bat dugu
hementxe euskara
ta Matusalen baino
zaharragoa da
arriskuan badago
goaz gu zaintzera
eta zurekin beti
atera kalera

Baionara arte doa korrika
Andoaindikan hasita
ta herri pilok jasoko dute
lekukoaren bisita
10 bat egun gelditu barik
denok petoak jantzita
mugi_ipurdia euskararen alde
tipi ta tapa korrika

Festetan beti dago
jende mozkortuta
garagardoan edo
ardoan itota

Pena ematen dute
oka egitean
erritmoa galduta
dantzetan hastean

Gu barre egiten dugu
hauze ikustean
eta barraketako
tiketa erostean

Lagunekin batera
kalera irtetzea
munduko hoberena
jaiak ospatzea



Lucas Rey ikastetxea - Amurrio 5.B

Zapatak ongi lotu itzazu
kalera atera ta korri
izerdia bota euskararen alde
nekagarri ta pozgarri
lekukoak bisitatzen ditu
zenbat bide eta herri
tipi-tapa bagoaz aurrera
eman euskara elkarri

Furgetaren megafonian
animoa igotzeko kantak
ilargi azpian ere badoaz
martxa bizian zapatak
Beti aurrera ez gaitu gelditzen
ez nekeak ez aldapak
euskara bada gure bihotza
gu izango gara bere hankak

Eskolara etortzea
aspergarria da
etxeko lan gehiegi
zelako ikara
gurasoak haserre
badute asanblada
greba egin beharko
dugu beharbada

Moskeatuta nago
irakasleekin
zeharo aspertuta
etxeko lanekin

Agenda beteegia
umea izateko
ez daukat denborarik
parkera joateko

Guk pisua soberan
daramagu etxera
hurrengoan motxila
doa lehertzera

Asko irakasten dute
hori egia da
baina batzutan ere
haserretzen dira



Lucas Rey ikastetxea - Amurrio

6. A

Plastikako klasean
komikiak marrazten
inguruko klasean
ibaiak ikasten
eta gimnasian berriz
jolasak egiten
zergatik ez gaituzte
gu pakean uzten

Kartel urdinak daude
korrika bidetan
emozioa tipi-tapa
gure herrietan
gure bizitza data
sua gure oinetan
euskara dagolako
gure bihotzetan

Andoaindikan Baionara arte
furgoneta bideetan
kilometro askoren nekea
gordeta dugu hanketan
tipi ta tapa euskararen alde
jende pila izerditan
Euskal Herri osotik bagoaz
lekukoa eskuetan

Guztiok batu gara
euskararen jaian
ikurrinak margotu
guztion artean
jaia badugu eskolan
gaurko egunean
gora euskara gora
euskal herri osoan

Gabonetan nahi nuke
denak zoriondu
xanpainarekin plazan
itxoiten gaude gu
ta hamabi mahatsak
jan behar ditugu
urte berri onena
opa dizuegu



Lucas Rey ikastetxea - Amurrio
6. B

EUSKARA

Euskal herrikoak ta
Arabarrak ere
Amurrion bizi gara
Euskararen jabe
Zer egingo genuke
Euskararik gabe
Euskaldunak gara ta
Oso harro gaude

Gure hizkuntza da ta
Munduko zaharrena
Baina euskararekin
Ikas behar dena
Guretzako seguru
Dela Politena
Euskara gure hizkuntza
Da bai hoberena

Euskara da gurea
Hori da seguru
Dantzatzen ta jolasten
Beti gabilta gu
Ta ipiniko dugu
Betirako Salbu
Gure hizkuntza da ta
Zaindu behar dugu

Aiaran konfiantza
Guztiok daukagu
Euskara bultzatzea
Da gure helburu
Gu ta gure lagunak
Gogoak ditugu
Euskararen bidea
Jarraituko dugu

Euskararen eguna
Hori bai dela guay
Hitz egiten gaude ta
Dantzatzen ere bai
Euskararen eguna
Hori da gure jai
Euskaraz hitz egin ta
Bizi oso alai



Zabaleko ikastetxea - Amurrio 5. eta 6. mailak

Herrian euskara dugu
paleolitotik hizkuntza
hizkuntza hauxe ez zaigu hilko
oraindik badu bizitza
hala ta guztiz, ez despistatu
denon ardura da zaintza
bera bakarrik ez doa inora
behar du gure laguntza

Andoainetik Baionara arte
Euskal Hizkuntzaren martxa
eman dezagun euskara elkarri
denok batera egin bultza
beti aurrera gelditu barik
azkarrak gara, ez pentsa!
tipi-tapa doaz nere hankak
ta taupaka dut bihotza

Sudur luzea badu
grisa kolorea
handia ta potolo
hagin bai luzea
haragia ez du jaten
da belarjalea
mamuten ondorengo
baina ilegabea
(aetnafele)

Korrika egiten dugu amurrion
guk kamiseta jarrita
ta amaituko dugu korrika
izerdiakin bustita
Euskal Herria zeharkatzen du
Andoainetik hasita
denon artean puztuko dugu
guk euskararen puxika!



**Virgen Niña ikastetxea - Amurrio
LH 6. maila**

GURE KLASEA

Gure taldea da bai
Onena ikasten
Klasean kromoeekin
Beti gaude aldatzen
Eta gure patioan
Beti arrasatzen
Ondo pasatzen dugu
Futbolan jolasten

Gure klasean inoiz
Ez gara aspertzen
Aitorren klaseetan
Barrezka egiten
Amaia etortzen bada
Euskaraz mintzatzen
Txintxoak ta gaiztoak
Denetarik hemen

Goizean lokartuta
Bagoaz gelara
Inguru ikasteko
Hau bai da ikara
Gaurko bertso klasean
Bertsoekin traba
Virgen niñako denak
Hoberenak gara

Gure bertso maisuak
Izena du unai
Euskaraz hitz egiten
Hori bai dela guay
Minecraft jolasten dugu
Pozik eta alai
Ikasten gara onenak
Patioan ere bai



**Virgen Niña ikastetxea - Amurrio
DBH 1. maila**

ASTEBURUA

Gu oso pozik ipintzen gara
Asteburua iristean
Klasea amaitu eta ondoren
Egoten gara parkean
Gaua helduta egoten gara
Jolasten denok kalean
Amaren bronka jasotzen dugu
Gure etxera heltzean

Asteburu guztietan gu bai
Partidua jolastera
Guk oso ondo jolasten dugu
Inoiz ez goaz galtzera
Klaserik gabe ondo gaude gu
Eta goaz ospatzera
Eta igandean sofán etzanda
Telebista ikustera

Larunbatean beti guztiok
Gaude kalean jolasten
Egun osoa poz-pezik gaude
klasera ez bagara joaten
arratsaldean eroskin gaude
gure merienda erosten
astelehenean berriro gaude
Klasean denok aspertzen

Asteburuan futbolarekin
eta beti irabazten
arratsaldean ta lagunekin
batzuk beti borrokatzen
igandeetan sofán etzanda
beti gaude deskantsatzen
eta eguna ondo amaitzeko
pelikula bat ikusten



Aresketa ikastola - Amurrio 6. A

GURE IKASTOLA

Gure ikastolan daude
 Ume guapoenak
 Eta ere badaude
 Animalienak
 Gu gara azkarrenak
 Ta bihurrienak
 Pixkat gaiztoak baina
 Gu gara onenak

Lehenengo bi ordu klase
 Errekreorik gabe
 Jantokian buffet-a
 Litzateke hobe
 Aresketa ikastolan
 Euskararen jabe
 Ikastola honetan
 Oso pozik gaude

Aresketa ikastolan
 Hizkuntza usaintzen
 Beti egongo gara
 Bertsoak kantatzen
 Asmatu eta gero
 Herrian mintzatzen
 Amurrioko ikastolan
 Euskaraz abesten

Aresketa ikastolan
 Euskaldun gehienak
 Ondo pasatzen dugu
 Gara hoberenak
 Asko ikasten dugu
 Euskara txarrenak
 Ikastetxe honetan
 Ikasle onenak



**Aresketa ikastola - Amurrio
6. B**

GURE KLASEA

Hamaika mutil gara
Sei neska ere bai
Bertsotan aritzean
Pasatzen dugu guai
Jolasak egitean
Maisua da unai
Neskak eta mutilak
Abesten oso alai

Taldetxo bat gara gu
Hainbat pertsonekin
Ondo pasatzen dugu
Denok elkarrekin
Aresketa ikastolan
Beti gaude berdin
Baina azken finean
Lagun askorekin

Klasean aspertuta
Gaude egunero
Ez dakigu zer egin
Gaudelako ero
Txapak aguantatuta
Jantokira gero
Etxeko lan gehiegi
Bai arratsaldero

Frogak egiten gaude
Kalkulagailuekin
Gazte eta txanela
Txuleta batekin
Aitor haserretzen da
Gu eta astoekin
Gero bidaltzen gaitu
Beti beraiekin



Aresketa ikastola - Amurrio
1. DBH- A

ELURRA

Aste osoa dibertitzeko
Elurretara joanda
Bola batekin kotxe bateri
Emango digu danba
Gelako denok egingo dugu
Etxegoienean parranda
Trineoarekin jeitsiko gara
kolpe itzelak emanda

Iritsi da bai behingoz elurra
Aresketa Ikastolara
lehiotik ikusi dugu elurra
eta korrika bertara
eman diguten bola izan da
bai kristonaren pasada
Asier prestatu zaitez oraintxe
ta izan gutaz ikara

Ez da amaitu mundu eta
bagoaz disfrutatzera
klasean gaude bertsoa martxan
ta joan nahi dugu kalera
ikastolatik ateratzean
bagoaz denok batera
gaur gure bolak joango dira
irakasleen artera

elurra dago nahiz eta laster
bukatuko da negua
udaberrian aterako da
kantatzeko asmoz kukua
trineo baten bota gara gu
elur artean burua
aurten elurra bukatuko da
lorei utziz lekua



Aresketa ikastola - Amurrio
1. DBH—B

ASTEBURU TXURIA

Asteburuan ibili gara
Elurrarekin jolasten
Panpinak egin denok barrezka
Ta denok bolak botatzen
Igande honetan joango gara
Babiora korrika egiten
Baina orain gaude gure klasean
Denok elurra ikusten

Asteburuan elurra egin du
Dena utzi du estalita
Trineoarekin atera gara
Eta itzuli bustita
Amaren bronka jaso ta gero
Ohera goaz korrika
Hurrengo egunean klasean gaude
Hau bai paisaia polita

Larunbatean joan ginen denok
Elurretan jolastera
Eider erortzen ta gu laguntzen
Denok barrezka hastera
Gero etxera bla blai eginda
Amatxo haserretzera
Astelehenean berriz klasera
Mahai gainean lo egitera

Larunbatean jolastu ginen
Lagunekin elurrean
Udaltzaingoak bronka botatzen
Amurrioko parkean
Tabernakoak mozkortu eta
Biluzik zeuden kalean
Besterik gabe agurtzen gara
Trineoan botatzean




Zaraobe institutua - Amurrio
1. D

Utz nazazu pakean
irakasle jauna
batzutan jartzen zara
zeharo astuna
eskola garaia da
aspergarriena
ta somniferoetan
somniaferoena

Apokalipsisaren eguna
biziko dugu zuekin
3D betaurrekoak jantzita
Dolvi surraund soinuakin
egutegia osatu zuten
zirikatze gogokin
gure garaia amaiara
bat egiten du oporrekin

Ze ederra den gure euskara
gu hemen gaude bultzatzen
gure ikurrina ta lauburuak
denok airera altxatzen
euskara beti odolana dugu
eta hau gaude kantatzen
gure hizkuntza galtzeaz dago
ta pena dugu sentitzen

Hizkuntza asko ta asko daude
zaharrena gure hizkuntza
nahiz ta ez dakit noiz den sortua
ez dauka ez bide motza
gure hizkuntza bizirauteko
behar du gure laguntza
baina euskara ez dago hilda
sobera dauka bizitza



Zaraobe institutua - Amurrio

1. E

Hasiera da oso neketsu
baino ere pozgarria
korrikan egiten den bidai
guretzat harrigarria
musikarekin zeharkatzen du
furgonak Euskal Herria
gure korrika hoberena da
hau martxa bizigarria!

Euskal Herriko algara handia
Andoainetik hasita
gure hizkuntza bultza dezagun
guk zapatilak jantzita
ta Baionara heltzerakoan
akabo ipuin polita
tipi-tapa bagoaz aurrera
Euskal Herria korrika!

Euskal Herrian beti
irakasle txarrak
eta horrexegatik
gara hain alferrak

Gela hontako mutilak
dira frikienak
gure klasean daude
neska hoberenak
Eta gure klasera
dator hoberena
gure DJ famoso
Jabi du izena

Diskotekan gabiltza
dantzatzeko guztiak
kriston temazo ona
jarri du DJ-ak

Gelara sartu orduko
hasten naiz lokartzen
natur irakasleaz
beti naiz aspertzen
gizarte zientzietako
kontrolan kopiatzen
mahai azpitik daude
txuletak dantzatzeko

Irakasleak dira
munduko astunenak
beti gehiegi dira
etxerako lanak
oporak noiz helduko
zenbatzen egunak
greba egingo dugu
kasu egin denak

Ikasleen ametsa
oporak heltzea
ta eskolako garaia
behingoz bukatzea
urte sabatiko bat
nahi dugu hartzea
eta etxeko lanak
suan erretzea



Zaraobe institutua - Amurrio
1. F

Mundu osoan hemen bakarrik
hitzegiten da euskara
horretaz harro egon behar gara
goaz kanpora abestera
gaurkoan Santo Tomas eguna
bagoaz festa ospatzera
euskara erabili behar dugu
gu euskaldunak bagara


Badatorkigu korrika eta
hogeian dugu amurriotik
euskaraz bizi ta mugitzeko
Euskal Herri guztiatik
jendea korrika egun askotan
dena euskararengatik
goazen denak euskararen alde
gurea izateagatik

Martxoaren 14an hasi
ailegatuarte presaka
lekukoaz batera goaz gu
oso alai ta oihuka
adin guztietako jendea
doa gurekin saltoka
Andoainetik Baionararte
doa aurtengo korrika

Nire hanken artean
potroak laukiak
beti asmatzen nabil
kriston aitzakiak

edozer egitea:
denbora galtzea
munduko hoberena
atseden hartzea

alfer hutsa naizela
esaten didate
holan jarraituko dut
oporrak heldu arte



Zaraobe institutua - Amurrio
1. G

Erromatarrak baino lehenago
hemen zegoen euskara
Europako hizkuntza zaharrena
harro egon behar gara
ezkutuan egon bada ere
ozena izan du taupada
baina itzalpean ez gara egon nahi
euskara_ atera kalera!

Gure hizkuntza euskara da ta
gu nahi duguna da hori
ez gaztelera ezta frantsesa
esan mundu guztiari
abestera aterako gara
gu bagara bertsolari
Zaraobeko ume guztiak
esan GORA! euskarari!

Munduan zehar herri asko daude
ta euskaldunak gara gu
herri guztiak ez bezalaxe
gure hizkuntza badugu
horren izena euskara da ta
onena bada seguru
tamalez asko ez da erabiltzen
hori aitortu behar dugu

Gure hizkuntza bultzatu nahian
tipi tapa guk korrika
Euskal Herrian, lagun guztiak
degastatzeko zapata
Baionara arte doa korrika
Andoainetik hasita
Euskaltzaleak garen guztiok
bideetan dugu zita



**Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega
LH 5. maila**

EUSKARAREN EGUNA

Euskaraz egitea
Dibertigarria
Ta gaztainak jatea
Da zoragarria

Euskara polita da
Gainera gurea
Nahi dugu gure herrian
Beti egitea

Arteko gure ama
Eskola onena
Euskararen eguna
Egun Politena

Gaztainak ta jolasak
Ta gure bertsoak
Bosgarren mailakoak
Gara oso txintxoak

Abenduaren hiruan
Bertsoak abesten
Eta arratsaldean
Patioan jolasten



**Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega
LH 6. maila**

ASMAKIZUNAK

Beti erretzen dago
ile mordoa du
kanak baditu eta
hori bai seguru
bera entzun ondoren
aspertzen gara gu
pixkat xelebrea da
baina maite dugu

Serio eta bordea
betaurrekoekin
oso negatiboa
da jendearekin
telebistakoa da
beti artistekin
beltzez jantzita doa
bai trajearekin

Gure pertsonaia da
dugu aktorea
bere lanean dugu
benetan trebea
oso majua eta
gainera gaztea
asko gustatzen zaio
ezpataz jotzea

Ile luzea dauka
da abeslaria
32 urte
hori bai Egia
seme alabak ditu
mutila bitxia
tatuajeak ditu
Bat oso handia



**Urduña Herri Eskola - Urduña
5. maila**

GURE OLENTZERO

Gure Olentzero etorri zaigu
bere mendigo bordatik
arnasa ere hartu egin du
sartzeko tximiniatik

Gabonetan denok pozik
gaude alaitasuna kaletik
alaitasuna bukatuko da
buelatatuz oporretatik

Urte honetan irakasleak
asko irakatsi dute
jolastorduan kafe bat hartuz
nik ere hori nahi nuke

Pixka bat eman guk esan eta
ezetz esan digute
dagoen hotzaz, ia edo zer
gauza bero baten truke.

MOZORROAK ATERA

Mozorroak atera
ator ta lamiak
egun honetarako
ederrak jantziak

Gogokin kantatzeko
gure abestiak
hemendik guk diogu
Gora inauteriak!

Euskara gure hizkuntza
Euskal Herrikoan
ondo pasatzen dugu
klaseko txokoan

Beste hizkuntza ere
ikasitakoan
beti euskaratik
gogoratzekoan



Urduña Herri Eskola - Urduña 6. maila

Maisuaren morala
zaborran saskian
oihuka gaudelako
egun guztietan
ez dugu "off" botoia
atzeko partian
gu ez gara isilduko
ezta ur azpian

Denbora aprobetxatu!
eta hori zer da?
definizioa ez zait
etortzen burura!
bertso bat egin gabe
joan zaigu denbora
hankarte arraskatzen
bizi naiz gustora

Bodega ta kopeta?
eta hori zer da?
errima ta doinua?
existitzen dira?
maisua eraman dugu
desesperatzera
norbait gaurkoan ere
badoa kalera

Gure klaseak ez du
ez hanka ta ez buru
ez dugu ezer ikasi
baina berdin zaigu
liburuxka guztiak
zurian ditugu
maisua izorratzea
dugulako helburu

korrikaren kantua jarrita
gelan guztiak oihuka
lekukoaren atzetik goaz
ume guztiak barrezka
korrika egin dut ta baita dantza
orain nago nekatuta
bi urte itxaron beharko ditugu
heldu_arte hurrengo korrika



Josefinos de Murialdo - Urduña 5. maila

Korrika da dibertigarria
azkar ta bizkor aurrera
10 egunez korrika eginez
ta euskaraz mintzatzera
zapatak lotu petoak jarri
korrika atera kalera
elkarrekin bagoaz aurrera
eta oztopoak atzera

Euskararen egunan
goazen kantatzera
gure ahots honekin
ekaitza esnatzera
bertso bat egitera
ondo pasatzera
euskararen eguna
gogoz ospatzera

Euskal herrian gaude
gabonak ospatzen
olentzero badator
opariak banatzen
elur panpina egiten
egunak pasatzen
gure euskadi polita
elurrez betetzen

Astoarekin dator
opariz beteta
Olentzero etxean
dago izkutatuta
zuhaitzaren azpian
opariak jarrita
mendira bueltatzen da
mozkortzen hasita

Batzuk mozzorratzeko
gomarekin nahiko
aurpegia zatarra
haiek dutelako
beste batzuk ordea
gara oso guapo
mozzoratu behar gara
gu ez ligatzeko



**Josefinos de Murialdo - Urduña
6. A**

Andoainetik Baionaraino
eman euskara elkarri
furgonetan esne beltza dago
baita ere betagarri
atzean utzi egin ditugu
mila bide ta mugarri
zapatak ongi lotu itzazu
hartu arnasa ta korri

Niri ez zait inporta
lan bat egitea
baina nere denboran
nahi dut jolastea

Josefinos eskola
hoberena izanda
ez dugu asko ikasten
hori egia da

Nire gustokoa da
Caty onena da!
inguru irakaslea
horixe da bera

Asko gustatu arren
bertso ikastea
asko pentsatzen badut
buruan dut kea

Etxeko lanekin dut
agenda beteta
eztanda egin behar dit
seguru karpeta

Eskerrak gertu dauden
berriro oporrak
denbora librearekin
kitatzeko zorrak

Hiru egun Lurraskan
pasako ditugu
kaixo ortua eta
kaixo zapaburu!



**Josefinos de Murialdo - Urduña
6. B**

XVIII.korrika da
Andoainetik hasita
lekukoa eskutik eskura
eta petoa jantzita
igual nekatuta egongo gara
baina inoiz ez etsita
milaka hanka tipi ta tapa
beti aurrera korrika

Egunero banator
Txefos eskolara
Amurrioko herritik
Urduñako hirira

Paleolito garaian
suaren ondoan
alkilerra merkea
zen kobazuloan
marrazkiak paretan
ta pixa kalean
gurpila asmatu gabe
bizi ginenean

Bertsotan ikastea
interesgarria
batzutan izaten da
dibertigarria

Eskualdeko bertso-eskolak
2012-2013 ikasturtea



AIARA ESKUALDEKO BERTSO-ESKOLA "AIEBE"

Amurrioko bertso eskola
Amurrioko Kultur Etxea
Juan De Urrutia Enparantza z/g
01470 AMURRIO

Laudioko betso eskola
Laudioko Kultur Etxea
Lamuza parkea, 13
01400 LAUDIO

Unai Menbidil - Izar Mendiguren
Telefona: 945 010505 (Arabako Bertsotale Elkarte)
e-posta: trunkatun@hotmail.com

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
AMAIA ZENTROA
 Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ
 Tel: 945010505 fax: 945288275
 e-posta: araba@bertsozale.com
www.arababertsozale.org
www.bertsozale.com



